

**UDAL TURISMO INFORMAZIO PUNTUAN ARITZEKO ETA BAZTANGO TURISMO ESKEINTZA GARATZEKO BAZTANGO UDALAK TURISMO ARLOAN TEKNIKARI KONTRATATUKO DU (3 hilabeterako, C maila), AUKERAKETA PROZESUA HONAKO HAU IZANGO DELARIK:**

**BETEBEHARREKOAK:**

- Batxillergoa, Lanbide Heziketako 2. maila edo baliokidea.
- B1 mailako gida baimena.
- Adinez nagusia izatea.
- Euskara ezagutza (C1/EGA).
- NEZ-an lan eskatzaile gisa egotea (Bakarrik onartuko dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eginiko aurretiko hautaketan agertzen diren hautagaiak).
- Joan den urtean, antzeko deialdi baten baitan, Baztango Udalean lanean hiru hilabetetik gora aritutako pertsonak ezingo dute hautaketa prozesu honetan parte hartu. (251/2018 EBAZPENA, martxoaren 7koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, interes orokorreko edo sozialeko obra eta Zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeke toki entitateendako diru-laguntzak arautzen dituen).

**KURRIKULUMAREN BAREMAZIOA (Gehienez ere 20 Puntu)**

**1.- FORMAKUNTZA (Gehienez ere 8 Puntu):**

- Hostalaritza eta Turismo arloko Goi mailako lanbide heziketa titulua edota Turismo arloko Gradua (lehenagoko diplomatura titulua): 3 puntu.
- Lanpostuarekin lotutako 50 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko puntu bat, administrazio publikoek antolatutakoak edota babestutakoak.
- Frantsesa edo Ingelesaren ezagutza ziurtatzen duen agiri bakoitzeko (gutxienez B2 mailakoa), 2 puntu

**2.- LAN ESPERIENTZIA (Gehienez ere 12 Puntu):**

- Administrazio publikoetan turismo arloan lanaldi osoan aritzeagatik, urte bakoitzeko: 2 puntu (gehienez ere 8 puntu).
- Entitate pribatu batean turismo informazio eta kudeaketa alorretan lanaldi osoan aritzeagatik, urte bakoitzeko puntu bat (gehienez ere 4 puntu).
- Egiaztatutako esperientzia baloratzean, urte edo lanaldi osoa egiten ez duen aldiari proportzioan dagokiona emanen zaio.

**3.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

- Deialdian parte hartzeko eskabideak Baztango Udaleko erregistroan aurkeztuko dira. Izangaiek kurrikuluma eta eskatutako tituluen egiaztagiria originalak aurkeztuko dituzte eskabidearekin batera, bai eta lehiaketan baliarazi nahi dituzten merezimendu guztienak ere. **Epea: 2023ko maiatzaren 30a, 14:00ak arte.** Eskaera erregistro elektronikoa bidez ere egin daiteke.
- Lan esperientzia egiaztatzeke bizi laboralaren dokumentua edota enpresa ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.
- **EUSKARA:** titulua edo baliokidea aurkezten ez duten hautagaiak maila zehazteke ahozko azterketa bidez akreditatu beharko dute. **Euskara probaren eguna 2023ko ekainaren 5**

**EZAGUTZA TEKNIKOA EGIAZTATZEKO PROBA (Gehinez ere. 80 Puntu)**

- Non: Baztango Udala
- Eguna: **2023ko ekainaren 08**
- Ordua: 9:00ak.
- Arduraduna: Epaimahaia.
- Edukia:

- Proba teorikoa. Baztango turismo eskeintza buruzko test moduko galderak (gehienez ere 30 puntu; guttienez 15 puntu eskatuko dira).

-Proba praktikoa (gehienez ere 50 puntu; guttienez 25 puntu eskatuko dira). Hautagaiek Baztango turismo eskeintzaren inguruan kasu praktikoa bat garatu beharko dute (informazio eskaera bati erantzuna eman, turismo arloan proposamenak egin, e.a.)

## **EPAIMAHAIA:**

Honako hauek izanen dira epaimahaikide:

-Mahaiburua: Baztango Udaleko alkatea.

Ordezkoa: Baztango Udaleko lehenengo alkateordea.

-Mahaikidea: Baztango Udaleko Turismo zinegotzia.

Ordezkoa: Baztango Udaleko zinegotzia.

-Mahaikidea: Baztan Udaleko Berdintasun teknikaria.

Ordezkoa: Baztan Udaleko langilegoaren ordezkari bat.

-Mahaikidea: Baztan Udaleko Garapen Agentea.

Ordezkoa: Garapen Agentek erabakitzen duena.

-Idazkaria: Baztango Udalekoa edo legez haren ordezkaria dena.

Ordezkoa: Idazkariak erabakitzen duena.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

Udalak test teorikoa gainditzen duten pertsona guztien behin-betiko zerrenda erabiltzeko aukeraz baliatuko da beharrezkoak diren egoerei aurre egiteko (ohiko langilearen lan bajak, opor egunak, behar berezi edo bestelakoak).

## **INFORMAZIO GEHIAGO:**

Tel. 948580006 [baztan@baztan.eus](mailto:baztan@baztan.eus)

Eman beharreko dokumentazioa:

-Currículum Vitae

- Batxillergoa, Lanbide Heziketako 2. maila edo baliokidea ziurtatzen duen agiria

-B1 gidabaimena

-NAN

-C1/EGA agiria (ez edukitzean, dagokion frogara eginen da)

-NEZ-an lan eskatzailea dela ziurtatzen duen dokumentua

-Lan esperientzia eta bertzelako formakuntza ziurtatzen duten agiriak

Dokumentazioa aurkezteko epea:

- Maitzaren 30, 14:00